



## AMEZKETAKO UDALA

(Gipuzkoa)

### **LARRONDOKO LARREALDIRAKO IZENAK EMATEKO EPEA IREKI DA**

Idatzi honen bidez jakinarazten zaizue, **Larrondon ganadua larreratzeko izena emateko epea ireki dela.**

**Behiak, ahuntzak eta ardiak 2025eko maiatzaren 1etik 2026ko martxoaren 31era bitartean larreratuko dira.**

**Behorak eta zaldiak larreratzeko epea berriz Pilarika egunean irekiko da, Urriaren 12an, eta 2026ko martxoaren 31ean amaitu.**

Izena ematea Udaletxeko bulegoan ein daiteke edo aurten lehendabiziko aldiz, herritarrek telematikoki egin dezakete, beti ere **ABENDUAREN 31 baino lehen.** (*Foru Aldundiak horrela eskatzen du, larratzeko eskaeren jakinarazpenak abenduaren 31 baino lehen egiteko, eskatzaileek diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ez galtzeko*). Ordaindu beharko diren kopuruak honako hauek dira:

#### 2. AMEZKETAKO UDALAREN ONURA PUBLIKOKO 2.008.1 zk. MENDIAN, AMEZKETAKO MENDIA IZENEKOAN, LARRATZEKO ESKUBIDEAREN TASA

	Arrunta	Nekazari profesionala edo titulu printzipala duen nekazaria *
Behor, behi, edota zaldi bakoitzagatik	11 €.	10 €.
Ardi edo ahuntz bakoitzagatik	1,10 €.	1 €.

\* Aldundiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du nekazari profesionalak edo titulu printzipala duen nekazariak, lehenetsitako ustiaketa baten titularra dela egiaztatzen duena.

**Deialdi hau ganaduzale guztiei eta baita ere udazkenean ganaduak botatzen dituzten ganaduzaleei egina dago. Garbi gogorazi eta jakinarazi nahi dizuet nahiz eta ganadua udazkenean larreratu, Udaletxean apuntea orain eman behar dela. Neurri honi jarraipen zehatza egingo diogu eta agindu hau betezen ez bada Amezketa Udalak bere neurriak hartuko ditu. Abereek derrigorrezko osasun baldintzak bete behar dituzte.**

**Ohartarazten da:**

- Ahuntzen kasuan, derrigorrezkoa da izena eman behar denerako Gestio Plana aurkeztea.
- **Larrondora ezin da ganadurik eraman Enirio-Aralarko larreetara igo aurretik.** Enirio-Aralarko larreetara zuzenenean eraman behar da.
- Mesedez eskatzen zaizue landatuta dagoen landare gaztea eta itxiturak errespetatzeko, landareengan kalterik sortu ez dadin.

Amezketan, 2024ko azaroaren 14an. ALKATEAK, Mikel Arteaga Zabala.

